

N

SUKALDEAK - OHOLTZAK - ATEAK
LEIHOAK ETA HORMA-ARMAIRUAK
ZURGINTZA ORO HAR

NARRASPE
s u k a l d e a k

Narraspe Sukaldeak
jai zoriontsuak
opa dizkizue!

Aita Urdaneta hiribidea, 7 behea
Tel.: 943 72 07 77 • Mug.: 616 43 51 76
Faxa: 943 72 12 02
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

TRATAMENDU TERMIKOAK

NIZA

Santa Luzia auzoa
Tel.: 943 72 04 51 - 943 72 09 52 - Faxa: 943 72 43 81
EZKIO-ITXASO




-estetika
-dietetika
-Produktu biologikoak

Lanbroa

JAIK
ONDO
PASA

Bidezahar, 7 - Tel.: 943 72 35 81
20700 Zumarraga



PAPELERIA IDATZI

- Bulegoko altzariak
- Mahaiak ordenagailuetarako
- Bulegoko materiala
- Informatikako kontsumigarriak



- Telenonia mugikorra eta finkoa
- Faxeko aparatuak
- Akzesorioak mugikorrentzat

Legazpi, 13 • Tel./ Faxa: 943 72 58 42 • ZUMARRAGA

Ondo pasa Santa Isabeletan!!

ZADA

Zuk bilatzen duzun moda
hemen aurkituko duzu!

Secundino Esnaola, 10 • Tel.: 943 72 35 61 • ZUMARRAGA



Txistulariak, Antioko erromeriaren ostean, Antiotik jaisten, kalejiran.

Txistulari parrandazaleen kronika

Sekula santan inori kontatu ez diotena
EGUNKARIAN irakurgai!

Santa Isabel eguna zumarragar guztiontzat urteko egunik garrantzitsuenak dela argi dago. Egun horretan, herritar ia guztiok Antion bildu eta urtero eritual bera jarraitzen dugu: txistuaren soinuak eta ezpata dantzaz gozatu, kidetasun giroan batekin eta bestearekin hitz egin, mahaia bazkarirako presatu, bazkaldu, kantatu, trago batzuk hartu, Antion beheara saltoka jaitsi...

Baina, egun horretako protagonista nagusiek, txistulariek eta dantzariak alegia, herritar xumeok bezala bizi ote dute Santa Isabel eguna? Zer esan nahi du dantzari edo txistulari batentzat Santa Isabel egunean txistua jotzeak edo dantzatzekak? Galdera horien erantzunaren bila Antziñako Ama Txistulari Taldeko Gorka Quevedo eta Josu Aztiriarengana jo dugu, eta honako hau da, gutxi gora-behera, txistulari parrandazaleen Santa Isabel eguneko kronika:

«Txistulariok, Santa Isabel egunaren aurreko asteetan, egun handirako entsegu bereziak egiten ditugu, nahiz eta ez dugun hauen benetako beharrik. Izan ere, gure zumarragar senak jaiotzez Zumarragako ez-

KALEJIRA

Pasakallea garai batean herritarrek esnatzeko egiten zen; egun, etxeratze agindua da

pata dantza jotzeko dohain berezia eman digu. Urretxuar dantzariak, orde, ezpata dantzaren doinua harrapatzeko zailtasunak izaten dituzte.

Sekulako poza

Txistulari guztiok Antion jotzerik ez dugunez, gure artean erabakitzen dugu Santa Isabel egunean nortzuek joko dugun. Esan beharrik ez dago jotzea suertatzen zaigunok sekulako poza hartzen dugula. Izan ere, zumarragar txistulari batentzat Antion jotzea txirrindulari batentzat urte berean Giroa eta Tourra dopatu gabe irabaztea baino handiagoa da.

Santa Isabel egunaren bezperako goizean ohetik altxatzea pittin bat kostatzen zaigu. Duxatu eta jantzi ondoren, amak, kapitainek soldaduak bezala,

ikuskatu egiten gaitu. Bere oniritzia jaso ondoren, kalera jaisten gara. Bertan gaupasa egin duten lagunekin topo egiten dugu. Une horretan, geure buruaz harro sentitzen gara, eta beraiek pena ematen digute (baita inbidia pixka bat ere).

Zortzietan, kalejira egiten dugu. Kalejirarena ohitura zaharra da: garai batean herritarrek esnatzeko egiten zen, baina egun etxeratze-agindua da. Horixe izaten dugu txistuarekin lehen kontaktua, benetan gogorra. Jotzen saiatzen gara, baina batzuetan ahoa lehorregia izaten dugu eta *play-back* egiten dugu.

Kalejiraren ondoren, gosalduta egiten dugu, eta 9:30ean, agintariekin eta dantzariekin plazan elkartzen gara. Dantzariak bi taldetan banatuak daude: gaua txintxo pasatu duten kapitainak eta parranda egin duten soka-koak. Guk, noski, bigarren taldekoekin harreman hobea dugu. Tropelaren buruan jartzen gara, eta Antiorako bidea hasten dugu. Urteko egunik garrantzitsuenak den honetan, agintariak txistularion atzetik joaten dira, eta horrek argi erakusten du gu garela herriaren benetako ordezkariak. Herrita-